

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Euskara ikastaroetarako dirulaguntzen deialdia

Udal honek dirulaguntzen deialdia egiten du 2015-2016 ikasturtean euskara ikasten aritu direnentzat; baldintza hauek betetzen dituztenek egin ahal izango dute eskaera:

1. Onuradunak.

Laguntzen onuradun izateko, baldintza hauek bete behar dira:

1) 16 urte baino gehiago izatea. 16 urte 2015-2016 ikasturtean betez gero, betetzen diren egunetik aurrerako aldiari dagokion dirulaguntza besterik ezingo da jaso.

2) Iruña Okan erroldatuta egotea ikastaroa hasi baino urtebete lehenagotik, eta erroldatuta jarraitzea ikastaroak irauten duen bitartean.

3) Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako ikasketa zentzoren batean matrikulatuta egotea.

4) Gutxienez, ikastaroko eskola orduen ehuneko 80era joan izana.

5) Hautatutako ikastaroak HABEren homologazioa izan beharko du.

6) Ez dute dirulaguntzarik jasoko euskara ikasteko online edo multimedia ikastaroen eskaerak.

2. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1) Eskaera orria.

2) 2015eko urria eta 2016ko ekaina bitartean emandako ikastaroen kasuan, ikastegiaren ziurtagiria, ikastaroaren ezaugarri hauek adierazita:

a. Matrikularen zenbatekoa

b. Ikastaroaren hasiera eta amaiera eguna

c. Asteko ordu kopurua

d. Bertaratzearen ehuneko

e. Maila

3) Matrikula ordaintzeko banketxean egindako diru sarreraren egiaztagiriaren kopia. Epeka ordainduz gero, den-denak aurkeztu behar dira.

4) Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

3. Eskaerak aurkeztea.

Eskaerak aurkezteko, Iruña Okako udal bulegoetan eskuratu ahal izango den inprimakia erabili beharko da. Eskatutako dokumentazioarekin batera aurkeztu behar dira.

4. Aurkezteko epea.

Deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik 2016ko urriaren 31 arte.

Langraiz Oka, 2016ko irailaren 20a

Alkate lehendakaria

JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA